


ezagutzen al duzu Donostia?

Bugatti

Bugatti baserri bat da (gaur egun taberna eta zalditegia ere bai), agian automobil marka baten izena daraman bakarra Gipuzkoa guztian. Izen-goiti bat da Bugatti, Lasarteko automobil-zirkuitoaren garaietan etxe honi ezarria, bere ikuiluetan konpontzen baitziren ospe handiko italiar markako automobil haiek.

Baserri hau Zubietako bereko Etxeberri baserriaren «gaztainhurra» deituriko sail batean eraiki zen. Zubietako komunitate zaharrak bere mendiak banatu zituen komunariaren artean honela gaztainbaso lote bat bakoitzari emanaz. Honela, Bugatti kokatzen den saila Etxeberri tokatzen zitzaien eta bere «gaztain lurrean»



etxe berri bat eraiki zuten eta Etxeberrieta izena jarri zioten. Honela du izen ofiziala, baina izen-goitiarekin askoz ere ezagunagoa da.

Etxeberri baserria Usurbilgo udal-dermioari dagokionez. Bugatti ere

Usurbileri dagokio, jende gehienak Donostiarena dela pentsatu arren. Urte gutxi dela Bugattin, obra batzuek zirela eta, Donostiako udaltzainek obra-baimena eskatu zuten etxekoei. Usurbilgoak zirela eta ez zirela beraiei

obra-baimenik erakutsi behar erantzun zioten. Udaltzainek orduan, behar ziren konprobaketak egin ondoren egia ziotela ziurtatu zuten.

JOSU TELLABIDE

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

BILINTX

megadenda

■ Kultura eta Aisialdirako, denda kontzeptu berria.

■ 800 m²



MUSIKA
BIDEOAK
JOKU HEZIGARRIAK
ALDIZKARIAK
ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA

IGANDE ETA JAIEGUNETAN ZABALIK

Fermin Kalbeton, 21 - DONOSTIA. Tf.: 420080 / Fax: 420388

Madril Hiribidea, 13 • Tfnoa.: (943) 47 45 77

vit-sec

Tindategi azkarra

Tanborradarako jantzetan
%40ko deskontua

Ordu betean kalitatea

Mirakruz, 13 • Tfnoa.: (943) 29 20 52